

LAUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

MINTZAMEN PROBA

- Saio bakoitzean bi azterketarik hartuko duzue parte.
- Probak aurkezpena eta bi ariketa izango ditu. Atal guztiak egin behar dituzue.
- 1. ariketan, azterketari bakoitza lauzpabost minutuz arituko da aldez aurretik prestatutako gai baten inguruan.
- 2. ariketan, bi azterketari arituko zarete. Ikuspegi kontrajarriak defendatuko dituzue.
- Egin beharreko probaren alderdiren bat ulertzen ez baduzu, azterketa hasi baino lehen, eskatu epaimahaiari zalantzak argitzeko.
- Saioa grabatu egingo da.

MINTZAMEN PROBA Probaren ezaugarriak	Aurreikusitako denbora	Puntuazioa gehienez	Puntuazioa gutxienez
<p>Aurkezpena</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Ez da ebaluatuko. ■ Labur-labur bakoitzak bere burua aurkeztuko du. (Nor/ NANA/nongoa/lana). <p>1. ariketa: Bakarka.</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Aldez aurretik prestatutako gai baten azalpena egin eta gaiari buruzko iritzia aurkeztu eta defendatu behar duzu. Gero, beste azterketariari entzundakotik aztertzaileek galderaren bat egiterik ere bada. ■ Euskarria: azterketari bakoitzak bere lan esparruari begirako bi aipamen izango ditu aukeran iritzi-azalpena garatzeko. ■ Denbora: 4 min. azalpena egiteko eta 1 min. aztertzailearen galderei erantzuteko. ■ Batak bukatzen duenean, besteak ekingo dio. ■ 15 puntu. <p>2. ariketa: Azterketarien arteko jarduna.</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Gai bera emango zaie azterketariei; bi ikuspuntu, kontrajarriak. Bakoitzak bere ikuspuntua defendatu beharko du. Hasieran banaka, atariko laburra egingo dute. Gero, elkarrizketari ekingo diote, eta eztabaidari. Epaimahaiak parte har dezake elkarrizketa bideratzeko edota jarduna orekatzeko. ■ Euskarria: 2 fitxa. Gai edo egoera bat eta argazki edo eskema bidez, gai horri buruzko ideia kontrajarriak. ■ Denbora: 1 min. fitxa begiratzeko, eta 10 min. elkarrizketan aritzeko. ■ 15 puntu. 	<p>35-40 min.</p> <p>(15 min. gaia prestatzeko dira)</p>	<p>30</p>	<p>15</p>

4. HE

(A fitxa)

MINTZAMENA


- **2. Ariketa:** Gaiaren inguruko eztabaida
 - Gai baten inguruko 2 fitxa banatuko zaizkizue: gai beraren inguruko bi ikuspuntu, kontrajarriak, bakoitzak berea defenda dezan. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizuegu gaiaren inguruko zenbait argazki eta ideia sorta bat.
 - Helburua: iritzia trukatzea, argudiatzea eta defendatzea.
 - Denbora: 1min. fitxa begiratzeko, eta 10 min. eztabaidan aritzeko.

- Ebaluatzerakoan hauxe hartuko da kontuan:
 - gaiarekiko lotura
 - gramatika-zuzentasuna
 - aberastasuna
 - erregistroaren formaltasuna eta egokitasuna
 - gaiaren arloko lexikoaren erabilera
 - jarioa
 - diskurtsoa antolatzeko abilezia

ERRETIRO ADINA ATZERATU: GERO ETA OKERRAGO!



Kontuz, adinekoa lanean!



- **Helburua pribatizazioa da.** Onuradun handienak «merkatuak» eta banka dira, pentsio-plan pribatuen bidez etekin handiak aterako dituen banka.
- Etorkizuneko **prestazioak murriztu egingo dira**, eta jada hasi dira pentsioa kobratu ahal izateko **baldintzak gogortzen**, adibidez, kontribuzio-urteen muga 15etik 25era igoaz.
- Milaka langileren pentsioa, batez ere emakumeena eta gazteena, kinka larrian dago: agintariak **prestazioak merkantzia bihurtu nahi dituzte eta eskubideak erosi egin beharko dira.**
- Biziraupen-faktorea dela eta, etorkizunean erretiro-adina 69 urtera atzeratzeko arriskua dago. **Bizitxaropena luzatzen doan heinean, erretiro-adina ere handitu egingo dute.**

4. HE

(B fitxa)

MINTZAMENA

- **2. Ariketa:** Gaiaren inguruko eztabaida
 - Gai baten inguruko 2 fitxa banatuko zaizkizue: gai beraren inguruko bi ikuspuntu, kontrajarriak, bakoitzak berea defenda dezan. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizuegu gaiaren inguruko zenbait argazki eta ideia sorta bat.
 - Helburua: iritzia trukatzea, argudiatzea eta eztabaidatzea.
 - Denbora: 1min. fitxa begiratzeko, eta 10 min. elkarrizketa egiteko.

- Ebaluatzerakoan hauxe hartuko da kontuan:
 - gaiarekiko lotura
 - gramatika-zuzentasuna
 - aberastasuna
 - erregistroaren formaltasuna eta egokitasuna
 - gaiaren arloko lexikoaren erabilera
 - jarioa
 - diskurtsoa antolatzeko abilezia

ERRETIRO ADINA ATZERATU: ZER BESTELA?



- Erretiro-adina atzeratzea langile faltari, jaiotza-tasa apalari eta bizi-itxaropenari aurre egiteko da. Beraz, **beharrezkoa da erreforma**.
- **Pentsiodunen kopurua gorantz doa:** 2020. urtean lan egiteko adina duen populazioa, 16-64 urte artekoa, % 4 gutxituko da; 65 urtetik gorakoa, aldiz, % 22,7 handituko da.
- **Erretiro-adinean malgutasun-faktoreak ezarriko dira**, eta kontuan hartuko dira langilearen egoera eta bakoitzak bizi dituen baldintzak.
- **Prestakuntza-programetan** parte hartzen duten gazteek Gizarte Segurantzari **kotizatuko dute**. Neurri positiboa, zalantzarik gabe.